



AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko azaroaren 6an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hamaseian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko urriaren 16an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- Z.O. y P.S.L.ri, Arteaga auzunea 14 eraikineko fatxadan obrak egiteko udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

3.- A..D. S.L.k, Zestoa Herri Eskola Ikastetxeko G-2701 ibilbidea lortu duela eta berau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lehiaketa publikoan esleitu zaiola. Aipatutako ibilbidea hiri-ibilbidetzat jotzen dela. Ondorioz, 2018-2018 ikasturtean G-2701 ibilbideari dagokion eskola garraio zerbitzua egin ahal izateko baimena ematen zaio.

4.- J.M.O.O.ri, Lizarraitz auzunea 4 eraikinean EITko lanak egiteko udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

5.- J.M.O.O.ri, Lizarraitz auzunea 2 eraikinean EITko lanak egiteko udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

6.- J.M.O.O.ri, Lizarraitz auzunea 3 eraikinean EITko lanak egiteko udal baimena ematea, akordioan ezarritako baldintzen arabera.

7.- G.E.E., bere etxearen ondoan (garajeetako atzean) ezinduentzat egokituriko aparkalekua prestatzea eskatzen dio Udalari. Bere garajearen aurreko hormaren ondoan, gaur egun, bat prestaturik dagoela dio, baina okupaturik egoten omen da. Erabaki da eskaera ez onartzea, lehen ere badagoelako aparkalekua.

8.- J.G.E.ri, Iraetabidea 10 eraikinean leiho bat aldatzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

9.- J.E.O.ri, Arteaga auzunea 16 eraikineko fatxadan hainbat konponketa lan egiteko udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

10.- N.G.A.ri, Toribio Alzaga kalea 10 eraikinean EITko lanak egiteko udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, txosten teknikoa eta Hirigintza eta Obretako Batzordearen irizpena aztertu ondoren, erabaki du:

11.- J.A.G., Aizarnan oilo erruleen esplotazioko proiektu aldatua aurkezten du. Erabaki da hainbat dokumentazio eskatzea.



ZESTOAKO UDALA

- 12.- M.J., Idiazpi 3 aurrean dauden garajeetan uraren hodietan azaldutako matxuraren bat dela eta, berria ez den afera batekin gogoratu direla dio. Ondorioz, aukera horiek berriz ere kontutan hartzea eskatzen du, eta ur-hoditeria modu egokiago batean joan dakien, beharrezkoak diren lanak burutzea. Erabaki da jakinaraztea Udalak gaiari berriro heldu eta aztertuko duela ze aukera dauden.
- 13.- O.S.C.ri, Arroabeko Sansinenea industrialdean duten pabiloian, 2018ko apirilaren 24ko erabakiz baimendutako lanen baitan, V/3/18/00240 bisatu zenbakia duen gehigarria barneragarria dela onartzea.
- 14.- O.S.C.ri, Iraetako hiltegian hainbat lan egiteko (ukuiluaren hobekuntza, triperi sarrera eta kamaretako zorua) udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.
- 15.- S.F.A., "Alonderoneko aldapako igogailu publikoaren" obra amaierako dokumentazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa.
- 16.- N.B.C., Zestoako AASS-en aldaketaren (Irao inguruan) testu bateratua aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako dokumentazioa.
- 17.- J.M.A.A., zezen plaza eramangarrirako Logure enpresak eginiko lanen ziurtagiria aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea aurkeztutako ziurtagiria.
- 18.-C.A.S.A., Alonderoneko aldapako igogailu publikoaren lanen 2.zertifikazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea aukeztutako ziurtagiria.
- 19.- C.A.S.A., Alonderoneko aldapako igogailu publikoaren lanen 3.zertifikazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea aukeztutako ziurtagiria.
- 20.- A.H.E., Zestoako Plangintzako Arau Subsidiarioen "A.R.1 Arroa-Goikoa" eremuan kokatutako apaizetxearen inguruko Hirigintza Hitzarmenaren aurkako alegazioak aurkezten ditu. Erabaki da berri ematea.
- 21.- U,U.A., V.U.J.ri Urola ibaiaren ezker ertzeko zaintza eremuan, aurretik zegoen eraikin baten estalkia berreraikitze lanak egiteko baimena ematen dio. Erabaki da jasotako dokumentuaren berri ematea eta interesatuari jakinaraztea obretako udal baimena lortu ahal izateko, dagokion dokumentazio teknikoak aurkeztu beharko duela.
- 22.- A.I.Z., Urdanetabidea 10eko oilaskotegiaren plana aurkezten du, legeztatzea eskatuz. Erabaki da hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea gaia.
- 23.- I.S.I, Ingurugiro Batzordearekin bilera bat eskatzen du, A.S.L. enpresari eman nahi zaion aktibitate baimena aztertzeke. Erabaki da Hirigintza eta Obretako Batzordearen hurrengo bilerako deialdia igortzea , bertan parte hartu ahal izateko.
- 23.- I.S.I, A.S.L. enpresak sarritan neurritz kanpoko zarata izugarria ateratzen duela dio. Hori dela eta, Udalari eskatzen dio zarata neurketak egitea eta behar diren neurriak hartzea. Erabaki da jakinaraztea, Jarduera baimenaren tramitazioaren baitan, Udalak A.S.L. enpresari zarata azterketa eskatuko diola, enpresa homologatu batekin egin beharko dena.
- 24.- L.Z.J., Gesalaga kalea 20 behean, Arkitekto Teknikoaren bulegoa jartzeko aurretiazko komunikazioa egiaztatze tekniko ziurtagiria aurkezten ditu. Erabaki da ontzat ematea



ZESTOAKO UDALA

aurkeztutako dokumentazioa.

25.- A.M.E.L, Arroaerrekako lurretako 01-219 partzelako lur zati bat segregatzeko udal baimena eskatzen du. Erabaki da hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea gaia.

26).- N.M.S, kotxeetan eta etxeko balkoietan burni-hautsa itsatsita geratzen dela konturatu direla dio. Kotxe batzuei herdoil puntuak ateratzen ari zaizkie eta, badirudi, Sansinenea industrialdetik etortzen dela. Horrela, arazoari irtenbide bat ematea eskatzen du, eta egin beharreko behaketekin hastea. Erabaki da Ingurumen Sailari jasotako kexaren berri ematea eta jakinaraztea enpresak Ingurumen Baimen Bateratua lortu zuela jarduera abian jartzeko. Baimen horren barruan urtero Ingurumen Zaintzako programa aurkeztu behar du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailean, ezarritako ingurumen baldintzak betetzen dituzten egiaztatzeko.

Hori dela-eta, Zestoako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari azken Ingurumen Zaintzako programaren kopia eta bestelako dokumentazio eguneratua eskatuko dio, besteak beste, atmosferaren gainean jarritako neurriak betetzen diren jakiteko.

28.- Zestoako Udala jakitun da M. 5 helbidean obrak egiten ari direla. Udal honetan ez da jaso inongo obra baimen eskaerarik. Erabaki da jakinaraztea egiten ari diren obrak ez dutela udal lizentziarik, obra horiek egin ahal izateko, Udalean aurkeztu behar dela obra baimen eskaera eta baimenik ez dagoen bitartean ezingo dela obrarik egin.

29.- U.U.A., B.A.S.A. hornitzeko, aurretik zegoen telefono sarea handitzeko lanen berri eman du. Erabaki da berri ematea.

30.- J.A.E., L. baserriko sukaldeko teilatua egokitzeko obretako udal baimena ematea, baia hiru lehio eta bi ate aldatzeko ere, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

Tokiko Gobernu Batzarrak, txosten teknikoa eta Hirigintza eta Obretako Batzordearen irizpena aztertu ondoren, erabaki du:

Batzorde informatiboen bileren akten onarpena

2018ko urriaren 15ean, Gizarte Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko urriaren 24an, Ogasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

Alkatetza ebazpenak- Honako Ebazpenen berri eman da:

* 167 zk, Zestoako Udaleko plantilan behin betiko bete gabe dauden lanpostuak, 2018ko lan eskaintza publikoan barneratzeko aukerak aztertzeke pausoak ematea.

* 168 zk, onartzea esparru akordioaren Kontratazio espedienteari atxikitzeke prozedura (datuen babeserako zerbitzuaren espedienteke)

* 169 zk, S.L.S.L.enpresari, udal jabetzake baso pista eta bideen erabilera berezia egiteke lizentzia ematea.

* 170 zk, 2018ko urriaren 27an, arratsaldeke 18:00etan, T.H.T.k Arroabeko kaleetan Korrikaña ekimena antolatzeke udal baimena ematea.



ZESTOAKO UDALA

- * 171 zk, M.Ur.C. andereari behin-behineko kontratua egitea lanaldiaren % 88ko portzentaiarekin B.T. F.k alta hartu bitartean.
- * 172 zk, S.J.El. 2017ko 3.hiruhilabetekoan sortu zen ur hornidura tasaren premiamenduzko errenergua deuseztatzeko erabakia.
- * 173 zk, X.E.U. bitarteko funtzionario izendatzea, brigadako peoi lanpostuan aritzeko, I.A.Eren oporrak amaitu arte.
- * 174 zk, E.S.Coop. enpresari, udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egiteko lizentzia ematea.
- * 175 zk, Tr. e I. S.A. enpresari esleitzea, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez itzulpen eta interpretazio zerbitzuak kontratazeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua.
- * 176 zk, Karmengo Amaren errepidea 6 zk. Eraikinean esku-hartzeko 3 hilabeteko epea emateko errekerimendua.
- * 177 zk, I.C.S.A.U. enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez, energia elektrikoaren horniketa kontratazeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua esleitzea.

Galdera eta erreguak. Ez da egon

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an
Idazkaria,

O.e
Alkateak,